


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Hardcorea, aukera bat baino askoz gehiago

Bergarako hardcore talde honek bigarren diskoan gogora ekarri du aspaldiko talde norvegiar baten izena (Life... but how to live it?). Horrez gain, hitz joko existenzialista hori baliatu du hardcorearen esentzian dagoena, hau da, norbanakoaren eta ingurukoaren askatasuna eta hobekuntza borrokatzeko. Aukeratzearen alde egiten dute, gizakia aktibo izatea aldarrikatzen dute. Bestalde, RKL eta hardcorearen beste klasikoetatik urrunago jo, eta hardcore kontzeptuaren zabaltasunean barreiatu dira, melodia, erritmo eta bestelako doinu bereizgarriekin emaitza asko aberastuz. Kaleak berreskuratzeari, zu zeu izateari, emakumeen askatasunari, etorkinei atea zabaltzeari... abesten diote. Emaidza bikaina da, eta diseinua oso txukuna. Diskoa taldearen eta Isiltasuna Apur-tzen eta Gratacel Records ekimenean elkarlanetik sortu da.



Bizitza... baina
nola bizi?
Fly Shit

ISILTASUNA APURTZEN /
GRATACEL RECORDS

Iraupena: 30'05"
6 euro

FLY SHIT

«Gure kantuak libre zabaltzea da gure asmoa, eta SGAErekin ez genuen ezer nahi»

Disko honetan eskola zaharreko ohiko hardcoretik alden-du egin zarete hainbat kantutan...

Gure musikaren oinarria da 80ko hamarkadako hardcorea, baina ez da entzuten dugun bakarra. Hardcorea eremu zabal bat bezala ulertzen dugu, eta egia da emocore, crossover edota jazz ukituak topa daitezkeela gure kantuetan.

Lan honetan autoekoizpenaren eta Creative Commons erako lizentziaren aldeko apustu argia egin duzue...

Bai, gure erara egin nahi genuen, hasieratik bukarara parte hartu eta kontrolatuz; 'egin ezazu zuk zeuk' filosofiarekin. Lan handia izan da, baina pozik gaude emaitzarekin. Bestalde, SGAErekin ez genuen ezer nahi. Gure kantuak libre zabaltzea da gure asmoa, eta Creative Commonsek aukera hori eskaintzen du. Gure musika kopiatu, emititu... egin daiteke, erabilera komertzialik ez badago eta egilea aipatuz gero.

Possible da "kaleak berreskuratzea"? Egia da "kristalezko begiak zelatan dauzkagula, gazte izateagatik susmagarriak garela", baina ez al gara gehiegi europartu eta komodo bihurtu?

Kaleak musika eta sormena bezala irekiak eta libreak beharko lirake; gure erakuslehoak dira. Eta gaur egun kalean askatasun askoren murrizketa ematen da: kontrol soziala, manifestazio askatasuna, moto-



rizazioa... Baina egia da, baita ere, gero eta komodoak eta kontsumistagoak garela.

"Arriskatzen ez bazara, erabakiko dute zugatik", "Gauzok ihes egiten didatela sentitzen dut". Erabakiak hartzeari uko egin diogu?

Bakoitzak bere bizitza nola bizi aukeratzearen aldekoak gara. Guk hau galdera bezala planteatzen dugu, bakoitzak hausnartu eta ondoren bere bidea aukera dezan. Guk talde bezala aukeraketa bat egin genuen, egiten dugunarekin disfrutatzeaz gain, jarrera bat ere hartu nahi dugu gu eta gure ingurua aldatzen joateko; banaketa sare alternatiboak eta espazio autogestiona-tuak sortu eta indartzeko helburuarekin.

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean Fly Shiten Ezerezari so kanta entzungai.